

## 'Mutil gazteak jada ez al dira lehengo gizonak bezalakoak, Rambo motako maskulinitate hori gaindituta, matxistak izateari utzi diote?'



**Juan Manuel Feito Guerrero**, nerabe gizonekin berdintasunari eta maskulinitasunari buruz lan egiteko tresna pedagogikoak mintegiko dinamizatzailerari **elkarrizketa**.

**Zuen Piper Txuriak elkarteak, eta zuk bereziki, urteak daramatzazue maskulinitasuna lantzen, ikasgeletan dauden gizonetako nerabeekin. Nola sortzen da behar hori, zerk bultzatzen ditu ikastetxeak edo senideak lan mota hori antolatzerara?**

Mutil gazteak jada ez al dira lehengo gizonak bezalakoak, *Rambo* motako maskulinitate hori gaindituta, matxistak izateari utzi diote? Gaur egungo gazteek maskulinitate tradizional horren jokabide negatiboak errepikatzen jarraitzen dute? Nola lagundu diezaioket nire semeari edo nire ikasle mutilei "gizentasuna eraikitzeko" prozesuan?

Galdera hauek askotan entzuten ditugu, eta gizonekin, generoari, berdintasunari edo indarkeriari buruzko jarduerak egiteko motibazioa izaten dira. Arreta haiengan jartzea, orain arte neskekin egin dugun moduan, haien genero-identitatea ere berrikusi behar dutela eta hori egitea funtsezkoa dela ulertzea. Baina nola? Badirudi, gero eta gehiago behar direla mutilekiko harremanak bideratu eta beraiekin lana egiteko genero-ikuspegia duten tresna pedagogikoak. Horregatik, ohikoa da ikastetxeek gurea bezalako elkarteei lankidetzat eskatzea.

### **Azalduko zeniguke nola sartzten diezun gai hori mutilei zure mintegietan?**

Jaiotzen garenean, gure bizitza baldintzatuko duen jantzi bat jantzen zaigu. Gainera, hazi ahala, jantzia estutzen joango da, eta horrek gure mugimenduak gero eta gehiago mugatuko ditu. Harik eta une bat iristen den, jantzia eta zein gure azala bereizten ez ditugula. Hainbeste itsatsiko zaigu, gure azala estalita geratzen dela, eta jantzi hori "naturala" dela usteko dugula. Eta "gezurrezko azal" horri balio bat eta funtzio batzuk esleitzen zaizkio maila sozialean. Horri deitzen diogu generoa.

Ezaugarri fisiko soila aitzakiatzat hartuta, gizon edo emakume gisa sailkatzen gaituzte, irizpidea horren sinplea eta murrizta da. Hala ere, karga sozial eta familiar izugarria dugula nabaria da. Oinarri horren gainean gaztelu handi eta astun bat eraikitzeko adinako indarra du, gure gustuak, ohiturak, erabakiak, pentsamenduak, sentimenduak, gorputz-keinuak, hitz egiteko moduak, janzkera, jolasak eta

jostailuak, ikustea gustatzen zaizkigun filmak, ikasketak eta aukeratzen dugun lanbidea zehaztuko dituen.

Hortik datorkigu jaio aurretik egiten dugun betiko lehen galdera, "mutila ala neska da?". Hori hain da erabakigarria, ezen gaztelaniak berak ere ez baitu "haurrak" modu neutroan izendatzeko kontzepturik.

### **Nola azaltzen dizkiezu genero-kontzeptu konplexuak, ulergarria eta interesgarria iruditzen zaien moduan? Adibide bat jar dezakezu?**

Oso goiz bustitzen gaitu gure kaxak *urdin* edo *larroxaz* margotzen dituen "sirimiri" geldiezinak, kolore honen arabera izango dituen ezaugarriak gure buru eta gorputzak baldintzatzen ditu. Inguratzen gaituzten pertsona guztiek baieztatzen dute hori horrela dela, ez *dagoela beste modurik*. Haiek ere janzten dituzte beren *jantziak*, eta haiek estaltzen dute benetan nortzuk diren; *kaxen* barruan daude, eta kutxek benetako izaera ezkututzen dute zama kultural horren azpian.

Haurtzaroan, oso gazte eta zaugarriak garenez, zalantzan jartzen dugu pertsona izateak zer esan nahi duen, zalantzan jartzen dugu oraindik kutsatu gabeko gure irizpide propioa baita gure gustu eta interesak ere. Gazte batek, gehien nahi duena zera da; bere adinekoek eta bizi den helduen munduak onartzea, ongietorria sentitzea, maitatua izatea, taldekide sentitzea.

Azken batean, *normala* izan nahi du. *Normala* dena ulertzeko, onartzeko eta barneratzeko prozesua hasi da, inguratzen duten eta bere nortasuna garatzen ari den parametro kultural-sozialetatik abiatuta. Denboraren poderioz, eta inguruan dagoena ikusita, normaltasun hori *naturala* bihurtzen da. Hala, guztiok ahaztu egiten dugu nola ulertzen genuen bizitza sozializazio-prozesu horren guztiaren aurretik.

### **Esango al diguzu ezer zuri buruz berdintasunaren eta maskulinitatearen arloan egin duzun ibilbideari buruz?**

2009an sortu genuen 'Piper Txuriak' Berdintasunaren aldeko Gizonen Elkarteak, eta ordutik elkarrekin koordinatzen aritu naiz, iristen zaizkigun eskaerei erantzuten, eta sentsibilizazio- eta kontzientziazio-jarduera ugari ematen. Aldi berean, berdintasuneko agente gisa lan egin dut Deustu-San Inazioko Asistentzia Psikosozialeko Moduluan, sexismoa ezabatzeko lanean oinarrituta.